# Pribatuen Iragarkiak

**EJIE, SA**

LEHIAKETA. Iragarkia, «Bezeroei arreta eskaintzeko Ejiek Eusko Jaurlaritzari eskaintzen dizkion zerbitzu kanporatuak (CAU, Instalazioak, Inbentarioa eta Hardwarea mantentzea) kontratatzea» helburu duen zerbitzu-kontratua esleitzeko dena (025/2005 espedientea). 10343

**EUSKADIKO KIROL PORTUA, S.A.**

LEHIAKETA, Kirol Portua, SAri atxikitako Getariko Kirol Portuko instalazioen marinel-, mantentze-, zaintza-, garbiketa-, eta administrazio/harrera-zerbitzuak kontratatzeko dena. 10346

# Anuncios Particulares

**EJIE, S.A.**

CONCURSO. Anuncio para la adjudicación del contrato de servicios que tiene por objeto «La contratación de los servicios externalizados de atención a usuarios: C.A.U., Instalaciones, Inventario y Mantenimiento Hardware que Ejie, presta para el Gobierno Vasco» (Expte. n.º 025/2005). 10343

**EUSKADIKO KIROL PORTUA, S.A.**

CONCURSO para la contratación de los servicios de marinería, mantenimiento, guarda, limpieza y administración-recepción de las instalaciones del Puerto Deportivo de Getaria adscritas a Euskadiko Kirol Portua, S.A. 10346

# Xedapen Orokorrak

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 2806

115/2005 DEKRETUA, maiatzaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arrantzaleen Kofradien eta Kofradien Federazioen Erregistroei eta komumikazioen araudiari buruzkoa.

Euskal Herriko Autonomi Estatutuak (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa), bere 10.21. artikuluan adierazten duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik ditu eskuduntzak arrantzaleen kofradien arloan.

Eskumen horren indarrez eman zen Arrantzaleen Kofradiei buruzko ekainaren 25eko 16/1998 Legea, Eusko Legebiltzarrak onartuta, eta bertan ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzaleen kofradiak ondoko hauen arabera eraenduko dira: lege horren, bera garatzeko arauen eta berek libreki xedatzen dituzten estatutuen arabera.

Ekainaren 25eko Arrantzaleen Kofradiei buruzko 16/1998 Legearen VII. kapituluak arrantzaleen kofradien eta kofradien federazioen erregistroaz dihardu. Oro har antolamendua eta jardueraren oinarriak jasotzen ditu, eta bai erregistroan inskribatu beharrekoak diren egintzak ere, existitzeko modua eta baliozkotasun ju-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

### 2806

DECRETO 115/2005, de 17 de mayo, del Registro de Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías del País Vasco y régimen de comunicaciones.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece en el artículo 10.21 la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Cofradías de Pescadores.

En virtud de dicha competencia se promulgó la Ley 16/1998, de 25 de junio, de Cofradías de Pescadores, aprobada por el Parlamento Vasco, la cual establece que las Cofradías de Pescadores del País Vasco se regirán por dicha Ley, por las normas que la desarrollen y por los Estatutos que libremente se otorguen.

La Ley 16/1998, de 25 de junio, de Cofradías de Pescadores, dedica su Capítulo VII al Registro de Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías del País Vasco, estableciendo, de forma genérica, las líneas básicas que deberán configurar su organización y funcionamiento, así como los actos que habrán de ser objeto

ridikoa izan dezaten, aipatutako legearen 67.3. artikuluan ezartzen den bezala.

Horri dagokionez, dekretu hau ekainaren 25eko 16/1998 Legearen garapena da. Goian aipatutako artikuluan aurreikusten den aginduarekin lotuta, arrantzaleen kofradien eta kofradien federazioen erregistroa sortu eta arautzen ditu, korporazio horien egiturari eta jarduerari eragiten dieten egintza guztiei publizitatea emateko tresna baita, eta bai garrantzi juridikoa dela eta segurtasuna eta publizitatea eskatzen duten gainerako egintza guztiei ere. Horrekin batera, kofradien kudeaketari dagozkion egintzen komunikazio-araudia sartzen da, egintza horiek duten garrantziagatik, beharrezkoa baita gutxienez sei hilean behin jakinaraztea, berri emateko eragin soiletarako.

Ondorioz, azaldutako guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzaleen kofradiei eta kofradien federazioei entzun ondoren, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko maiatzaren 17an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Helburua

Dekretu honen xedea ekainaren 25eko 16/1998 Legeko 67.1. artikuluan aurreikusitako Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzaleen kofradien eta kofradien federazioen erregistroa sortzea, antolatzea eta jarduera arautzea da, eta bai bertako kudeaketa-egintzen komunikazio-erregimena arautzea ere.

*2. artikulua. –* Xedea.

Arrantzaleen kofradien eta kofradien federazioen erregistroaren xedea arrantzaleen kofradien egiturari eta jarduerari eragiten dieten egintza guztiei publizitatea emateko tresna izatea da, eta bai garrantzi juridikoa dela eta segurtasuna eta publizitatea eskatzen duten gainerako egintza guztiei ere, horrela, arlo honetako eskumenak egoki garatzeko beharrezkoa den informazioa etengabe izateko, modu integratuan eta eguneratuta.

*3. artikulua.–* Eskumenak.

Erregistroa kudeatzeko eta eramateko erantzulea izango denez, Arrantza Zuzendaritzak eskumen hauek izango ditu:

a) Erregistroan nahitaez sartu behar diren egintzak sailkatzea, kalifikatzea eta inskribatzea, berresteko ebazpena eman ondoren.

b) Ziurtagiriak eta publizitateko gainerako tresnak edo baliabideak ematea.

de inscripción registral, en aras a alcanzar su existencia y validez jurídica, tal y como lo establece el artículo 67.3 de la citada Ley.

En este sentido, el presente Decreto supone un desarrollo de la Ley 16/1998, de 25 de junio, en relación con el mandato previsto en el artículo arriba mencionado, creando y regulando el citado Registro de Cofradías de Pescadores y de Federaciones de Cofradías del País Vasco, como instrumento de publicidad respecto a todos aquellos actos que afecten a la estructura y funcionamiento de estas corporaciones, así como a todos los demás actos cuya trascendencia jurídica aconseja que se les dote de seguridad y publicidad. Asimismo se incluyen un régimen de comunicaciones de actos relativos a la gestión de las Cofradías, que por su trascendencia, se considera necesario que, al menos, semestralmente se comuniquen, a efectos meramente informativos.

En su virtud, por todo lo expuesto, oídas las Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías del País Vasco, oída la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el 17 de mayo de 2005,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto crear, organizar y regular el funcionamiento del Registro de Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías del País Vasco, previsto en el artículo 67.1 de la Ley 16/1998, de 25 de junio, de Cofradías de Pescadores, así como el régimen de comunicaciones de los actos de gestión de las mismas.

*Artículo 2.–* Finalidad.

El Registro de Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías del País Vasco tiene como finalidad servir de instrumento de publicidad respecto a todos aquellos actos que afecten a la estructura y funcionamiento de las Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías, así como a todos los demás actos cuya trascendencia jurídica aconseja que se les dote de seguridad y publicidad, para disponer de forma permanente, integrada y actualizada, de la información precisa para el correcto desempeño de las competencias en esta materia.

*Artículo 3.–* Competencias.

La Dirección de Pesca, como órgano responsable de la gestión y llevanza del Registro, tendrá las siguientes competencias:

a) Clasificar, calificar e inscribir, previa resolución de ratificación, los actos que obligatoriamente deban acceder al Registro.

b) Expedir certificaciones y demás instrumentos o medios de publicidad.

c) 6.2. artikuluan aipatzen den artxiboa edo protokoloa eramatea.

*4. artikulua.*– Erregistroko inskripzioaren eraginak.

1.– Kofradien eta federazioen estatutuak, aldaketak eta akordioak edo hitzarmenak erregistroan inskribatu ahal izateko, beharrezkoa da Arrantza Zuzendaritzak aldez aurretik berrets ditzan.

2.– Nahitaezko betebeharra izango da Erregistroaren xede diren egintzak bertan inskribatzea, horren arabera izango baitute existitzeko modua eta baliozkotasun juridikoa, arrantzaleen kofradiei buruzko ekainaren 25eko 16/1998 Legearen 67.3. artikuluan ezarritakoarekin bat.

*5. artikulua.*– Erregistroaren antolaketa eta kudeaketa.

1.– Erregistroa bakarra da Euskal Autonomia Erkidego osorako. Nekazaritza eta Arrantza Sailak ditu erregistro horren gaineko eskumenak eta bera da erregistroaren zuzendaritzaren eta kudeaketaren erantzulea, Arrantza Zuzendaritzaren bitartez.

2.– Erregistroaren kudeaketa informatikaren bitartez egingo da. Hala ere, erabiltzen diren prozedura informatikoak dokumentuen artxiboekin osatuko dira. Artxibo horietan inskribatu diren agirien kopiak jasoko dira, eta bai agiri horiei buruz emandako administrazio-ebazpenak ere.

*6. artikulua.*– Erregistroaren egitura eta edukia.

1.– Erregistroa bi sekziotan egituratuko da.

a) 1. sekzioa: Bizkaiko Lurralde Historikoko kofradiak eta kofradien federazioak.

b) 2. sekzioa: Gipuzkoako Lurralde Historikoko kofradiak eta kofradien federazioak.

2.– Sekzio horiek, halaber, dagokion lurralde historikoan dauden arrantzaleen kofradien eta kofradien federazioen adinako azpi-sekzio izango dituzte. Kofradia edo kofradien federazio bakoitzeko espediente bat zabalduko da.

3.– Arrantzaleen kofradien eta kofradien federazioaren erregistroan inskribatuko dira korporazio horietatik eratortzen diren egintza guztiak, arrantzaleen kofradiei buruzko ekainaren 25eko 16/1998 Legeko 67. artikuluaren arabera erregistro horretan sartu beharrekoak baldin badira; bereziki, egintza hauek:

a) Batzar eratzailearen erabakiak, hauei buruzkoak:

1.– Arrantzaleen kofradia baten edo kofradien federazio baten eraketa.

2.– Arrantzaleen kofradia baten edo kofradien federazio baten estatutuen onespena.

b) Batzar Nagusiak onartutako erabakiak, hauei buruzkoak:

1.– Lankidetzako erabakiak.

c) Llevar el archivo o protocolo a que se refiere el artículo 6.2.

*Artículo 4.*– Efectos de la Inscripción Registral.

1.– Los Estatutos de las Cofradías y Federaciones, sus modificaciones y sus acuerdos o convenios deberán ser previamente ratificados por la Dirección de Pesca, para poder ser inscritos registralmente.

2.– La inscripción en el Registro de los actos que sean objeto de la misma, constituirá requisito obligatorio del que depende la existencia y la validez jurídica de los mismos, de conformidad con lo establecido en el artículo 67.3 de la Ley 16/1998, de 25 de junio, de Cofradías de Pescadores.

*Artículo 5.*– Organización y gestión del Registro.

1.– El Registro es único para toda la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus competencias corresponden al Departamento de Agricultura y Pesca, que es responsable de su dirección y gestión a través de la Dirección de Pesca.

2.– La gestión del Registro se realizará informáticamente. No obstante, los procedimientos informáticos utilizados se completarán con archivos documentales que contendrán las copias de los documentos que hayan sido objeto de inscripción así como las resoluciones administrativas dictadas con relación a aquéllos.

*Artículo 6.*– Estructura y contenido del Registro.

1.– El Registro se estructura en dos secciones:

a) Sección 1.ª: Cofradías y Federaciones de Cofradías del Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Sección 2.ª: Cofradías y Federaciones de Cofradías Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.– Estas secciones quedarán, a su vez, divididas en tantas subsecciones como Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías existan en el Territorio Histórico correspondiente. Por cada Cofradía o Federación de Cofradías se abrirá un expediente.

3.– En el Registro de Cofradías de Pecadores y Federaciones de Cofradías del País Vasco serán objeto de inscripción todos los actos emanados de estas corporaciones que, según el artículo 67 de la Ley 16/1998, de 25 de junio, de Cofradías de Pescadores, deban tener acceso a dicho Registro, y en particular los siguientes:

a) Acuerdos de la Asamblea Constituyente relativos a:

1.– La constitución de una Cofradía de Pescadores o de una Federación de Cofradías.

2.– La aprobación de los Estatutos de una Cofradía de Pescadores o de una Federación de Cofradías.

b) Acuerdos de aprobación de la Asamblea General relativos a:

1.– Los acuerdos de colaboración.

2.– Lurralde-eremuaren aldaketa, bat-egite, desegite edo ezabatzea.

3.– Kofradiek, beren kabuz edo federazioen bidez, beste enpresa batzuetan edo lurraldeko, Estatuko, Europako Erkidegoko eta nazioarteko beste erakunde batzuetan izan behar duten partaidetza.

c) Herri-administrazioek arrantza profesionalaren sektoreari eragiten dioten arloetako jarduerak eskuordetzea onartzen dituzten erabakiak.

d) Nekazaritza eta Arrantza Saileko erabakiak, dagokion prozeduraren espedientea egin ondoren hartutakoak, arrantzaleen kofradia baten ezabaketari buruzkoak.

4.– Inskriba daitezkeen egintza guztiak, aurreko paragrafoan aipatutakoak, arautitako egintzak izango dira. Beraz, legezkotasun arrazoiak direla eta bakarrik ukatu ahal izango dira inskripzioak erregistroan.

5.– Arrantzaleen kofradiek eta kofradien federazioek, halaber, seihilero eman beharko dute kudeaketari buruzko erabaki hauen berri:

b) Batzar Nagusiak onartu beharrekoak diren erabakiak:

1.– Diru-sarreren eta gastuen aurrekontuak onartzea, hilero, eta bai aurrekontu-itxiera onartzea ere.

2.– Ondarearen, ekonomiaren eta finantzen egoeraren urteroko balantzea onartzea, eta bai urteroko memoria ere.

3 - Ondasun higiezinen antolamendua.

4.– Jarduteko memoria, egitasmoak eta jarduteko programak onestea.

b) Kofradiako edo kofradien federazioko kideen alta, baja edo bateraezintasunei buruzko Zuzendaritza Batzordearen erabakiak.

Egintza horiek erregistroan inskribatu ahal izango dira, argibide-ondorioetarako, berrespen beharrik gabe.

7. ***Artikulua.***–Prozedura.

1.– Nekazaritza eta Arrantza Sailetik eratortzen diren eta arrantzaleen kofradien gain edo federazioen gain eragina duten egintza guztiak, eta bai horiek hartutako erabaki eta hitzarmen guztiak ere, lege-aginduz Arrantza Zuzendaritzaren azterketaren menpe baldin badaude, eduki behar dituzten txosten juridikoak eta txosten tekniko eta ekonomikoak oinarri hartuta, ofizioz inskribatuko ditu Arrantza Zuzendaritzak, erregistroko organo erantzulea denez.

2.– Arrantzaleen kofradiek eta federazioek beren jarduera arruntaren esparruan emandako egintzak edo erabakiak (hala nola dekretu honetako 6.3. artikuluko b) paragrafoko 1., 2. eta 3. idatz-zatietan jasotakoak), aldeek eskatuta inskribatuko dira, dagokion eskabidea-

2.– La modificación, fusión, disolución y/o supresión del ámbito territorial.

3.– La participación de las Cofradías, por sí o a través de sus Federaciones, en otras empresas u organizaciones territoriales, estatales, comunitarias e internacionales.

c) Acuerdos por los que se aprueba la delegación por parte de las Administraciones Públicas de funciones, en materias que afecten al sector pesquero profesional.

d) Acuerdos del Departamento de Agricultura y Pesca, adoptados previa instrucción del correspondiente procedimiento, relativos a la supresión de una Cofradía de Pescadores.

4.– Todos los actos inscribibles, citados en el apartado anterior, tendrán carácter reglado, por lo que solo podrán denegarse las inscripciones en el Registro por razones de legalidad.

5.– Asimismo las Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías deberán comunicar semestralmente aquellos acuerdos relativos a su gestión, que se citan a continuación:

a) Acuerdos cuya aprobación corresponde a la Asamblea General:

1.– La aprobación de los presupuestos anuales de ingresos y gastos así como la aprobación del cierre presupuestario.

2.– La aprobación del balance anual de la situación patrimonial, económica y financiera así como de la memoria.

3.– La disposición de los bienes inmuebles.

4.– La aprobación de la memoria de actuaciones, de los proyectos y programas de actuación.

b) Acuerdos de la Junta Directiva sobre el alta, la baja o la incompatibilidad de los miembros de la Cofradía o Federación de Cofradías.

Estos actos podrán ser inscritos en el Registro a efectos informativos sin necesidad de ratificación.

***Artículo*** 7.– Procedimiento.

1.– La inscripción de todos aquellos actos que procedan del Departamento de Agricultura y Pesca y que afecten a la Cofradías de Pescadores y/o Federaciones, así como todos aquellos acuerdos y convenios adoptados por las mismas y que, por mandato legal, se encuentren sometidos a examen por la Dirección de Pesca en base a los informes jurídicos y técnico-económicos de los que deberán ir provistos aquéllos, se practicarán de oficio por la Dirección de Pesca, como órgano responsable del Registro.

2.– Los actos o acuerdos dictados por las Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías en el marco del funcionamiento ordinario de las mismas, como son los recogidos en los puntos 1, 2, 3 del apartado b) del artículo 6.3 del presente Decreto, se inscribirán a ins-

ren bitartez. Dekretu honetako I. eranskinean aurreikusitako eredura egokituko da eskabidea.

3.– Interesdunek eskabidea eta beharrezko agiriak aurkeztuko dituzte, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Arrantza Zuzendaritzan dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzaleen kofradien eta kofradien federazioen erregistroan, edo bestela, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4. artikuluan aipatutako lekuetan.

Eskabide horiekin batera inskribatu beharrekoak diren egintzak jasotzen dituzten agiriak aurkeztu behar dira eta, hala egokituz gero, arrantzaleen kofradiei buruzko ekainaren 25eko 16/1998 Legearen 69. artikuluak eskatzen dituen txosten juridiko eta tekniko-ekonomikoak.

4.– Arrantza Zuzendaritzak erabakia berretsi eta erregistroan inskribatuko du edo, hala egokituz gero, inskripzioa ukatu. Legezkotasuneko arrazoiak daudenean bakarrik ukatuko da inskripzioa eta Arrantza Zuzendaritzak ukoaren ebazpen arrazoitua emango du.

5.– Datu gutxiegi aurkeztu direlako inskripzioa egitea ezinezkoa balitz, interesdunari gabezia hori zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko eskatuko zaio. Arau honetan zehazki aurreikusita ez dagoenari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

6.– Eskatutako inskripzioa ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa da, eskaera Arrantza Zuzendaritzako erregistroan sartzen denetik kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitakoarekin bat. Epe hori pasa ondoren, berariazko ebazpenik ematen ez bada, inskripzioa baietsi egin dela ulertu behar da.

***8. artikulua.***– Hutsen zuzenketa

1.– Edozein motatako inskripziotan egindako hutsak ezin dira zuzendu gainean berridazketak, ezabaketak edo urradurak eginez. Zuzenketa egiteko beste idazpen bat egin beharko da, beste zenbaki bat emango zaio eta honako hauek jasoko dira:

a) Idazpen akastunaren erreferentzia eta zein lerrotan dagoen.

b) Oker dauden hitzak edo kontzeptuak.

c) Egindako akatsen ordez zein termino jarri behar diren.

d) Jatorrizko idazpena berretsita dagoela dioen aitorpena.

2.– Orri-bazterreko oharren zuzenketa zuzendutako oharren ahalik eta hurbilen egingo da.

tancia de parte, mediante la correspondiente solicitud, que se ajustará al modelo previsto en el anexo I de este Decreto.

3.– Los interesados presentarán la solicitud y la documentación necesaria, dirigida a la Dirección de Pesca del Departamento de Agricultura y Pesca, en el Registro de Cofradías y Federaciones de Cofradías del País Vasco o en los lugares previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Dichas solicitudes habrán de ir acompañadas de la documentación que contenga los actos objeto de inscripción y, en su caso, de los informes jurídicos y técnico-económicos exigidos en el artículo 69 de la Ley 16/1998, de 25 de junio, de Cofradías de Pescadores.

4.– La Dirección de Pesca procederá a la ratificación y a la inscripción registral del acuerdo o, en su caso, a la denegación de dicha inscripción, que solo podrá ser por razones de legalidad. En este último caso, el Director de Pesca, dictará resolución denegatoria motivando la misma.

5.– En el caso de que la inscripción no pudiera practicarse por insuficiencia de los datos aportados, se requerirá al interesado para subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, señalándose que, en lo no previsto en la presente norma, resultará de aplicación lo previsto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

6.– El plazo máximo para resolver y notificar la inscripción solicitada es de tres meses, a contar desde la entrada en el registro de la Dirección de Pesca, de conformidad con lo dispuesto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, transcurrido el cual sin haber recaído resolución expresa se entenderá estimada la inscripción.

***Artículo 8.***– Rectificación de errores.

1.– Los errores cometidos en cualquier tipo de inscripción no podrán rectificarse mediante enmiendas, tachas o raspaduras. La rectificación se realizará mediante la extensión de un nuevo asiento al que se otorgará un número nuevo y en el que se hará constar:

a) La referencia al asiento y línea donde se ha cometido el error.

b) Las palabras o conceptos erróneos.

c) Los términos que sustituyan a los errores cometidos.

d) Declaración de haber quedado rectificado el asiento primitivo.

2.– La rectificación de notas marginales se extenderá lo más cerca posible de las rectificadas.

3.– Erregistro-idazpen bat zuzentzen denean, oker dagoen idazpenaren orri-bazterrean idazpen berriaren aipamena egingo da.

4.– Inskripzio bat zuzendu ondoren, horren eraginpeko arloko gainerako idazpenak ere zuzendu egingo dira, oker baldin badaude. Zuzenketa hori dagokion orri-bazterreko idazpenaren bitartez egingo da.

*9. artikulua* - Erregistroaren publizitateari buruzko baliabideak.

Erregistroaren publizitatea idazpenen edukiaren ziurtagirien bitartez edo protokoloa osatzen duten agirien kopia konpultsatuaren bitartez egingo da.

*10. artikulua.–* Ziurtagiriak.

1.– Egindako inskripzio guztiei buruzko ziurtagiriak eskatu ahal izango dira. Agiri hori Arrantza zuzendariak izenpetuko du eta inskripzioaren edukia behar bezala ziurtatzeko balioko du. Arrantza Zuzendariak, halaber, egindako inskripzioei buruzko ohar sinpleak egin ahal izango ditu.

2.– Ziurtagiriak negatiboak edo positiboak izan daitezke:

a) Ziurtagiri positiboak erabatekoak edo partzialak izango dira eta kasu bietan dekretu honek arautzen duen erregistroko edukiari berari buruzkoak izango dira.

b) Erabateko ziurtagiriek horretarako erabili diren orrietan jasotako idazpenak osorik erreproduzituko dituzte.

3.– Ziurtagiri partzialetan nahitaez adierazi behar da beti azaldu gabe geratu den zatian ez dagoela ziurtatzen dena zabaltzen, murrizten, aldatzen edo baldintzatzen duen ezer.

4.– Arrantza zuzendariak emango ditu ziurtagiri eta ohar sinpleak , hamar eguneko epean, eskabidea aurkezten denetik kontatzen hasita.

*11. artikulua.–* Inskribatutako datuak aldatzea.

1.– Nahitaez jakinarazi behar zaizkio Arrantza Zuzendaritzari inskribatutako datuetan gertatzen diren aldaketa guztiak, hamar eguneko epean, aldaketa eragiten denetik kontatzen hasita. Kasu guztietan beharrezkoak diren agiriak aurkeztu behar dira.

2.– Arrantzaleen kofradiek eta kofradien federazioek, halaber, Arrantza Zuzendaritzak interesdunei erregistroa eguneratzeko bidaltzen dizkien inprimakiak bete behar dituzte.

3.– Eskabide-eredua dekretu honetako II. eranskinean aurreikusten dena da.

*12. artikulua.–* Baliogabetzeak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Arrantzaleen Kofradien eta Kofradien Federazioen Erregistroan eginda-

3.– Cuando se haya rectificado un asiento registral, se extenderá al margen del asiento erróneo una remisión suficiente al nuevo asiento.

4.– Rectificada una inscripción, se rectificarán también el resto de los asientos relativos a las materias afectadas, si también fueran erróneos. Dicha rectificación se realizará mediante la extensión de la correspondiente nota marginal.

*Artículo 9.–* Medios de publicidad registral.

La publicidad del Registro se llevará a cabo mediante certificaciones del contenido de los asientos o copia compulsada de los documentos integrantes del protocolo.

*Artículo 10.–* Certificación.

1.– De toda inscripción que se practique se podrá solicitar certificación de la misma. Dicho documento irá firmado por el Director de Pesca y será un medio de acreditar fehacientemente el contenido de la inscripción. Asimismo el Director de Pesca podrá expedir notas simples de las inscripciones practicadas.

2.– Las certificaciones podrán ser positivas o negativas:

a) Las certificaciones positivas serán totales o parciales y en ambos casos irán referidas al contenido propio del Registro que se regula en el presente Decreto.

b) La certificación total reproducirá íntegramente los asientos practicados en las hojas abiertas al efecto.

3.– En las certificaciones parciales ha de expresarse siempre obligatoriamente que en lo omitido no hay nada que amplíe, restrinja, modifique o condiciones aquello que se certifica.

4.– Las certificaciones y notas simples se expedirán por el Director de Pesca en un plazo de diez días, desde la presentación de la solicitud.

*Artículo 11.–* Modificación de los datos inscritos.

1.– Se deberá comunicar obligatoriamente a la Dirección de Pesca todos los cambios y alteraciones que se produzcan en los datos inscritos en el plazo de diez días a partir del momento en que se produzca la modificación, acompañando en todo caso los documentos necesarios.

2.– Asimismo, las Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías deberán cumplimentar los formularios que la Dirección de Pesca remita a los interesados para la actualización del Registro.

3.– El modelo de solicitud es el previsto en el anexo II de este Decreto.

*Artículo 12.–* Cancelaciones.

1.– La inscripción en el Registro de Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías del País Vasco se

ko inskripzioa besterik gabe baliogabetu daiteke, interesdunari entzun ondoren, edo interesdunak berak eskabidea egin ondoren. Kasu bietan beharrezkoa izango da arrazoitzea.

2.– Arrantza zuzendariak dagokion baliogabetzeko ebazpena emango du, eta interesdunari eta Erregistroko arduradunari jakinaraziko die. Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Arrantza sailburuordeari.

*13. artikulua.* – Datu-basea

Agiriak arrantzaleen kofradien eta kofradien federazioaren erregistroan inskribatzeko informatika-aplikazio bat ezarriko du Nekazaritza eta Arrantza Sailak, sei hilabeteko epean, gehienez ere, dekretu hau indarrean sartzen denetik kontatzen hasita, eta informatika-sare batez konektatutako ordenagailu zentraletan gordeko dira aipatutako aplikazioko datuak, datuon segurtasuna bermatzearren.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Arrantza Zuzendaritzak bere kabuz inskribatuko ditu Kofradien eta Federazioen Erregistroan egun diren kofradia eta federazioak, baita haien gobernu eta administraziorako organoak ere. Ondoren adierazten dira:

a) Bizkaiko sekzioa:

1.– Armintzako Santo Tomas Arrantzaleen Kofradia.

2.– Bermeoko San Pedro Arrantzaleen Kofradia.

3.– Elantxobeko San Nicolás de Bari Arrantzaleen Kofradia.

4.– Lekeitioko San Pedro Arrantzaleen Kofradia.

5.– Mundakako San Pedro Arrantzaleen Kofradia.

6.– Ondarroako San Clara Arrantzaleen Kofradia.

7.– Santurtziko San Pedro Arrantzaleen Kofradia.

8.– Zierbanako Santa Maria Arrantzaleen Kofradia.

9.– Bizkaiko Arrantzaleen Kofradien Federazioa.

b) Gipuzkoako sekzioa:

1.– Donostiako Karmengo Ama Arrantzaleen Kofradia.

2.– Getariako Elkano Arrantzaleen Kofradia.

3.– Hondarribiko San Pedro Arrantzaleen Kofradia.

4.– Mutrikuko Arrantzaleen Kofradia.

5.– Orioko San Pedro Arrantzaleen Kofradia.

6.– Pasaiako San Pedro Arrantzaleen Kofradia.

7.– Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Federazioa.

podrá cancelar de oficio, previa audiencia al interesado, o a solicitud del propio interesado, siendo necesaria en ambos casos la motivación de la misma.

2.– El Director de Pesca dictará la correspondiente resolución de cancelación, que será notificada al interesado así como a los responsables del Registro y contra la que cabrá recurso de alzada ante el Viceconsejero de Pesca.

***Artículo 13.***– Base de datos.

El Departamento de Agricultura y Pesca implantará una aplicación informática para la inscripción de documentos en el Registro de Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías del País Vasco, en el plazo máximo de seis meses desde la entrada en vigor del presente Decreto, cuyos datos se almacenarán en ordenadores centrales conectados mediante una red informática con objeto de garantizar la seguridad de los mismos.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

La Dirección de Pesca inscribirá de oficio en el Registro de Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías del País Vasco las actualmente existentes junto con sus órganos de gobierno y administración, y que son las que a continuación se recogen:

a) Sección de Bizkaia:

1.– Cofradía de Pescadores Santo Tomas de Armintza.

2.– Cofradía de Pescadores de San Pedro de Bermeo.

3.– Cofradía de Pescadores San Nicolás de Bari de Elantxobe.

4.– Cofradía de Pescadores San Pedro de Lekeitio.

5.– Cofradía de Pescadores San Pedro de Mundaka.

6.– Cofradía de Pescadores Santa Clara de Ondarroa.

7.– Cofradía de Pescadores San Pedro de Santurtzi.

8.– Cofradía de Pescadores Santa María de Zierbana.

9.– Federación de Cofradías Pescadores de Bizkaia.

b) Sección de Gipuzkoa:

1.– Cofradía de Pescadores Nuestra Señora del Carmen de Donostia.

2.– Cofradía de Pescadores Elkano de Getaria.

3.– Cofradía de Pescadores San Pedro de Hondarribi.

4.– Cofradía de Pescadores de Mutriku.

5.– Cofradía de Pescadores de San Pedro de Orio.

6.– Cofradía de Pescadores San Pedro de Pasaia.

7.– Federación de Cofradías de Pescadores de Gipuzkoa.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Nekazaritza eta Arrantza sailburuak ahalmena du, beraren eskumenen eremuan, dekretu hau garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapen guztiak agindu bitartez emateko, eta bai dekretu honetan azaltzen diren eranskinak aldatzeko ere.

***Bigarrena.***– Dekretu honek Euskal Autonomia Erkidegoko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko maiatzaren 17an.

Lehendakaria
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Se faculta al Consejero de Agricultura y Pesca para dictar, mediante Orden, en el ámbito de sus competencias, las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto, así como para modificar los anexos que figuran en el mismo.

***Segunda.***– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de mayo de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁEZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

MAIATZAREN 17KO 115/2005 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

ARRANTZALEEN KOFRADIA BATEN /
KOFRADIEN FEDERAZIO BATEN AGIRI BAT INSKRIBITZEKO ESKABIDEA

Eskabide egiten duenaren izen-abizenak.

Kofradia / Federazioa: ..........................................................................................................................................................

NANaren, pasaportearen edo beste nortasun agiriren baten zk.: ..................................................................................

Helbidea: ................................................................................................................................................................................

Posta-kodea: ................................................................................... Udalerria: ..........................................................................

Telefonoa: ............................................................ Faxa: ......................................... E-maila: .........................................

ESKATZEN DUT, eskabide honekin batera doan agiria edo doazen agiriak Euskal Autonomia Erkidegoko Arrantzaleen Kofradien eta Kofradien Federazioen Erregistroan inskribatzea, hauek alegia:

*

*

*

*

*

*

Lekua, eguna eta eskabidegilearen sinadura.

............. ..........ko ..............................aren ......a.

SINADURA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARRANTZALEEN KOFRADIEN ETA KOFRADIEN FEDERAZIOAREN ERREGISTROAREN ARDURADUN JAUNA/ANDREA. NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

---

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, datuak fitxategi automatizatu batean erregistratu ahal izango dira, kudeaketa hobea egiteko asmoz. Informazioaren jasotzailea Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila izango da. Nekazaritza eta Arrantza Sailak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituen Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2002ko abenduaren 16ko Aginduan (2003ko uztailaren 14ko Aginduak aldatua) ezarritako erabilera eta helburuen arabera, eskatzaileak berariazko baimena ematen du bere datuak, guztiak edo batzuk, erabiltzeko. Interesdunak datuetan sartu, datuak zuzendu, ezabatu eta horien aurka egiteko eskubidea gauzatu ahal izango du, datu-tratamenduaren arduraduna den Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzan (Donostia-San Sebastián kalea 1, Vitoria–Gasteiz).

MAIATZAREN 17KO 115/2005 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

AGIRI BAT ALDATZEKO, ORDEZTEKO EDO BALIOGABETZEKO INSKRIPZIOA EGITEKO ESKAERA

Eskabidegilearen izen-abizenak.

Kofradia / Federazioa: ..........................................................................................................................................................

NANaren, pasaportearen edo beste nortasun agiriren baten zk.: ..........................................................................................

Helbidea: ..............................................................................................................................................................................

Posta-kodea: .................................................................................. Udalerria: ..................................................................

Telefonoa: ............................................................ Faxa: ........................................ E-maila: .............................................

ESKATZEN DUT, eskabide honekin batera doan agiria Euskal Autonomia Erkidegoko Arrantzaleen Kofradien eta Kofradien Federazioen Erregistroan inskribatzea. Agiriaren xedea honako hau da (X bat ipini dagokion laukitxoan):

☐ EZEZTATZEA ☐ ORDEZTEA ☐ ALDATZEA

honako agiri hau:..........................................................................................................; hauek dira agiriaren datuak:

- Non eta noiz formalizatua:
- Euskal Autonomia Erkidegoko Arrantzaleen Kofradien eta Kofradien Federazioen Erregistroan inskribatzeko baimena eman zuen ebazpena zein egunetakoa da?

Lekua, eguna eta eskabidegilearen sinadura.

............. ..........ko ..............................aren ......a.

SINADURA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KOFRADIEN ETA KOFRADIEN FEDERAZIOAREN ERREGISTROAREN ARDURADUN JAUNA/ANDREA. NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, datuak fitxategi automatizatu batean erregistratu ahal izango dira, kudeaketa hobea egiteko asmoz. Informazioaren jasotzailea Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila izango da. Nekazaritza eta Arrantza Sailak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituen Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2002ko abenduaren 16ko Aginduan (2003ko uztailaren 14ko Aginduak aldatua) ezarritako erabilera eta helburuen arabera, eskatzaileak berariazko baimena ematen du bere datuak, guztiak edo batzuk, erabiltzeko. Interesdunak datuetan sartu, datuak zuzendu, ezabatu eta horien aurka egiteko eskubidea gauzatu ahal izango du, datu-tratamenduaren arduraduna den Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzan (Donostia-San Sebastián kalea 1, Vitoria–Gasteiz).

*ANEXO I al DECRETO 115/2005 DE 17 DE MAYO*

*SOLICITUD DE INSCRIPCIÓN DE UN DOCUMENTO DE UNA COFRADIA / FEDERACION DE COFRADIAS DE PESCADORES*

*Nombre y apellidos de la persona solicitante:*

*Cofradía / Federación: ..........................................................................................................................................................................*

*N.º del DNI, pasaporte u otro documento de identidad: ..........................................................................................................*

*Dirección: .................................................................................................................................................................................................*

*Código Postal: ................................................................................... Municipio: ....................................................................*

*Teléfono: ................................................................ Fax: ............................................ E-Mail: ......................................*

*SOLICITO la inscripción en el Registro de Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías de Pescadores del País Vasco del documento o documentos adjuntos a esta solicitud, que son:*

*
*
*
*
*
*

*Lugar, fecha y firma de la persona solicitante.*

*............ a ... de ........... de ......*

*FIRMA*

*SR./SRA. ENCARGADO/A DEL REGISTRO DE COFRADIAS DE PESCADORES Y FEDERACIONES DE COFRADIAS DEL PAIS VASCO. DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA.*

---

*De conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal los datos podrán ser registrados en un fichero automatizado, con la finalidad de realizar una mejor gestión y siendo destinatario de la información el Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco. El solicitante otorga su consentimiento expreso a la cesión total o parcial de los datos personales según lo establecido a los usos y fines en la Orden de 16 de diciembre de 2002, del Consejero de Agricultura y Pesca por la que se regulan los ficheros automatizados de Datos de Carácter Personal gestionados por el Departamento de Agricultura y Pesca, modificada por Orden de 14 de julio de 2003. Los interesados podrán ejercitar el derecho de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante la Dirección de Servicios Generales del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco como responsable del tratamiento y con domicilio en c/ Donostia- San Sebastián, 1, en Vitoria- Gasteiz.*

*ANEXO II al DECRETO 115/2005 DE 17 DE MAYO*

*SOLICITUD DE INSCRIPCIÓN DE LA MODIFICACIÓN, SUSTITUCIÓN O REVOCACIÓN DE UN DOCUMENTO*

*Nombre y apellidos de la persona solicitante:*

*Cofradía / Federación:* ..........................................................................................................................................................

*N.º del DNI, pasaporte u otro documento de identidad:* ........................................................................................................

*Dirección:* ..........................................................................................................................................................................

*Código Postal:* ..................................................................................   *Municipio:* ......................................................................

*Teléfono:* ................................................................   *Fax:* ............................................   *E-Mail:* .......................................

*SOLICITO la inscripción en el Registro de Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías del País Vasco del documento adjunto a esta solicitud, que tiene por objeto (márquese con una X lo que proceda):*

☐ *REVOCAR*   ☐ *SUSTITUIR*   ☐ *MODIFICAR*

*el documento de   cuyos datos son los siguientes:*

- *Lugar y fecha de formalización:*
- *Fecha de la resolución que autorizó su inscripción en el Registro de Cofradías de Pescadores y Federaciones de Cofradías de Pescadores del País Vasco:*

*Lugar, fecha y firma de la persona solicitante.*

*............ a ... de ........... de ......*

*FIRMA*

*SR./SRA. ENCARGADO/A DEL REGISTRO DE COFRADIAS DE PESCADORES Y FEDERACIONES DE COFRADIAS DEL PAIS VASCO. DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA.*

---

*De conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal los datos podrán ser registrados en un fichero automatizado, con la finalidad de realizar una mejor gestión y siendo destinatario de la información el Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco. El solicitante otorga su consentimiento expreso a la cesión total o parcial de los datos personales según lo establecido a los usos y fines en la Orden de 16 de diciembre de 2002, del Consejero de Agricultura y Pesca por la que se regulan los ficheros automatizados de Datos de Carácter Personal gestionados por el Departamento de Agricultura y Pesca, modificada por Orden de 14 de julio de 2003. Los interesados podrán ejercitar el derecho de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante la Dirección de Servicios Generales del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco como responsable del tratamiento y con domicilio en c/ Donostia- San Sebastián, 1, en Vitoria- Gasteiz.*